

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 4781

*AGINDUA, 2013ko urriaren 17koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia ebazten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia iragartzen duen Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko abuztuaren 19ko Aginduaren laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (2013ko abuztuaren 26ko EHAA, 161. zenbakia), honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Jon Iñaki Urbina García de Vicuña jauna lurralde-ordezkarari izendatzea; 511786 kodea; 6. dotazioa; 29. destino-osagarria; Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2013ko urriaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 17a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.